

PALEOLITOA

HISTORIAKO AROAK

Paleolitoa, orain dela 2,5 milioi urte hasi zen.

Animaliak ehizatzen zituzten, harrizko armak, sua eta egur landua erabiliz.

Landareak eta fruituak biltzen zituzten elikatzeko. Arrantzan ere ikasi zuten. Nomadak ziren.

Hainbat erlijio-erritu zituzten; horien lekuko dira topatutako arte-aztarnak, bai labarretan topatutako margoak eta baita arte higigarria. Hauek, hezurretan, adarretan edo harri zapaletan egindako irudiak izaten ziren.

Paleolito garaia hiru zatitan sailkatzen da.

BEHE PALEOLITOA

Garai honetako ezaugarri nagusia gizakiak zeudela da, zehazki bi gizaki mota. Homo Erectus eta Homo Habilis. Ehiztariak eta bilatzaileak ziren.

ERDI PALEOLITOA

Garai honetako ezaugarri garrantzitsua gizakiak eboluzionatzen jarraitu zuela da.

Neanderthal gizakia. Klima epeldu zen, eta horregatik itsaso aldera jo zuten. Hildakoak lurperatzen hasi ziren.

GOI PALEOLITOA

Ehizaz eta basafruituz elikatzen ziren. Gizakiaren eboluzioa da garrantzitsuen garai honetan. Homo Sapiens eta Cro-Magnon.